



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Astearte 2007-11-20

VURTEA 1.292 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

KILOMETROAK ERAIKITZEN

IRURA 'Eraikitzen' leloarekin ekingo dio Irurak Kilometroak 2008ren «erronka handiari»

JAIALDIA Herenegun leloa, logoa eta arropak aurkeztu zituzten; «borobila izan zen», azaldu du Mendizabalek 4



Ezker-eskuin: Mendizabal, Irazu, Manterola, Aiestaran eta Elortza, atzo eginiko prentsaurrekoan. I. GARCIA



650 lagun inguru bildu ziren Ferialekuan eginiko herri bazkarian. HITZA

Babarrun Asteak 20.000 lagun inguru bildu ditu egun hauetan

TOLOSA Juan Mari eta Karmele Aramendik irabazi zuten Lehiaketa Gastronomikoa 6-7

Baserritar eta artisauen azoka «arrakastatsua» Anoetan

bete eta bidali/eraman edo deitu:
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza.
Araba etorb. 5, behean - 20400 Tolosa

Izena.....Abizenak.....

.....NA.....

Helbidea.....

Herria.....P.K.....

Telefonia.....

k/k


P. elektronikoa.....

arreta zenbakia

902-82 02 01
(astegunetan 8:30-20:30 / larunbatetan 9:00-13:30)

egin zaitez orain Hitzaren harpidedun eta zure ametsetak bidaia eskura dezakezu!

bi lagunentzako astebeteko egonaldia



HITZA orain gertuago

kanaria uharteak egipto
jordania riviera maya
salvador (brasil)
costa rica istanbul india

Deiak edo esku orriak jasotzeko azken eguna: abenduak 12
Zozketa eguna eta irabazlea egunkarian: abenduak 20

Abenduaren Ona 12, 1999 Lege Organikoa Data Pertsonala: Berbeteak, berretza, jatorrietan diraguz zure datu pertsonala. TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK: 31 zen bitartean automatizatutako batura pasatutako dirak, enpresari daturen eskariz berri ematen, zure esku dago. Kuzkoak, zuzentzeko, ezarritako eta korretzagatiko eskututako erabiltza, zure gaitasunaren arabera, ezarri behar dira. TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK: 31 bitartean 2007ko baurako edo itzazko gertutako 2007-11-20

Azoka ikusi, santua agurtu eta munduko kulturak ezagutu

Kultura » Baliarrainen, Amezketan, Ibarren eta Berastegin kultur asteetaz gozatu dute; Albizturren, berriz, San Gregorio ospatu dute

A. IMAZ - N. URBIZU

Tolosaldean kultur asteek herriko jaien txanda hartu dute, udazkenak udaren lekua hartu duen bezala. Hala eta guztiz ere, *kunplimendu herrian* San Gregoriorekin ongi geratu nahi izan dute.

Baliarraingo Kultur Elejira

Herenegun Baliarrainen Jubilatuen Bazkaria izan zen, eta Zartagi jatetxean 12 lagun elkartu ziren. Bazkariaren aurretik 1990. urteko herriko bideo emanaldia izan zuten, eta dena «ondo» joan zen eta jendea «gustura» egon zen, udal txeko langileen esanetan.

Larunbatean haurrei zuzendutako ekitaldi bat zegoen, baina irakaslea gaixo jarri zenez, ekitaldia bertan behera geratu zen. Egundau datorren larunbatean eramango dute aurrera, eta orduan haur eta ume kozkortuen txanda izango da.

Amezketako feria «arrakastatsua»

Amezketan igandeko feriarekin Kultur Astea bukatu egin zuten. «Ezin hobe», jende asko hurbildu baitzen plazara, Xatur Zabala zinegotziak esan bezala. «Parte-hartzea bai herritarren aldetik eta baita postuak jarri zituztenen aldetik ere oso ona» izan zen.

Postu guztiak Amezketako herritarrenak ziren, Abaltzisketatik jaitzako marmeladen postua kenduta. Pintxo postu pare bat, talogileak, orujo-egilea, sagardo-egilea, pitxiak, barazkitako 3 postu handi, ukenduak, hegazti mota asko ikusteko, ezti-egilea, bainiak... «Giro oso ona» izan zen, beraz.

Udalaren eta Kultur Batzordekoen partetik «esker beroenak» eman nahi izan dizkiete parte-hartzaileei. Kultur Asteari bukaera borobila emateko modua izan da.

San Gregorio Albizturren

Larunbatean, 20 lagun inguru bildu ziren afaltzera Albizturren. Afariaren ondoren, Arandia anaia aritu ziren trikitiarekin gaua alaitzen. Igandean, berriz, Toka Txapelketa jokatu zuten. Bertan ere 20 lagun inguruk hartu zuten parte. Umeetan, Jokin Zubizarretak irabazi zuen, emakumeetan, Arantxa Kondadok, eta gizonetan, bere anaia den Bernardino Kondadok. Azken honek, lehen tiradan Ivan Artolarekin berdindu zuen, baina berdinketa haustekoan Bernardino gailendu zuen.

Alegian herritarren ahotsak

Txintxarri Eguna ospatu zuten Alegian herenegun, eta elizan kontzertuak eman zituzten, bai Txintxarri abesbatzak, bai Txintxarri Txikik. Gero, bazkaria izan zuten.

Berezitasun bat izan zen: Txintxarri Txikik estreinakoz *Ibaiertzeko zuhaitza* abestia kantatu zuten. Kantu hau Aitor Iraola gazteak asmatutakoa da, abesbatza honetako piano-jotzaile eta abeslaria. Ondorioz, lore-sorta bat eman zioten.

Ibarren aukera bikoitza

Gaztetxeak XIV. urteurrena ospatzeko antolatu duen Kultur Asteari, Kultura Trukea Hamabostaldia elkartuko zaio gaurtik aurrera.

Ibarako Gazte Asanbladak, hitzaldia antolatu du etzirako. 19:00etan Askagintzaren eskutik drogen gaia aztertuko dute, *Drogak larrugorritan* izeneko hitzaldian. Azaroaren 24an berriz, larunbatean, mendi irteera egingo dute 08:30etik aurrera. Ibilbideari dagokionez, Gaztetxetik irten eta Uzturrera igoko dira. Hemendik Belabieta eta San Lorenzo igaro ondoren, Berastegira iritsiko dira. Bertatik autobusez egingo dute herrirako itzulera.

Gaztetxeako Kultur Astearen azken eguna azaroak 25ean ospatuko da, 18:30eko zine-klubaren eskutik.

Kultura Trukea Hamabostaldia gaurtik azaroaren 30era luzatuko da. Hamar egun hauetan, erakusketa ezberdinak egongo dituzte Benito Izagirre kultur etxean, 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara. Horretaz gain, hitzaldiak, bideo eta dokumental emanaldiak eta dantza erakustaldiak ikusteko aukerak egongo dira Kultur Etxean nahiz herrian zehar.

Lehen ekitaldia, gaur 19:30ean burutuko da. Kultur Etxean *La Ti-*



Berastegin Gazta Lehiaketa ospatu zuten; epaileek Mari Karmen Zunzunegiren gaztari eman zioten lehen saria. HITZA



Baliarraingo Kultur Elejiraren baitan 12 jubilatuek elkartu ziren Zartagi jatetxean. ANDER OTEZABAL



Amezketako feria arrakastatsua izan zen. Herritarren postuek plaza girotu zuten goizean zehar. ANDER OTEZABAL



Maribi Kerejeta albizurtarra Toka Txapelketan parte hartzen. HITZA

Akademía Pausoka
Martin J. Iraola 2 - behea
TOLOSA • 943 67 24 48

- Ingelesa

First Certificate, advanced, Proficiency bezalako azterketa ofizialezko prestakuntza.

- Frantsesa, arabiera, italiara

Maita guztiak • Gaiturko irakasleak

- Errefortzu eskolak

Zientziak eta letrak *adin guztiak Eguneroko jarraipena *talde murriztuak

Tolosan, Berrobin eta Berastegin ematen ditugu klaseak.

» EGITARAUA

Azaroak 20, gaur

■ **10:00etan.** Erakusketa Benito Izagirre Kultur Etxean. (Azaroak 30 arte).
■ **19:30ean.** *La Tigra* filma ekuadortarren emanaldia.

Azaroak 21, bihar

■ **19:30ean** Bideo emanaldia Benito Izagirre Kultur Etxean.

Azaroak 22, etzi

■ **19:30ean.** Fabricio Cajas-en *Tu cárcel... narrativa de ausencia y de viaje* dokumentalaren emanaldia.

Azaroak 25, igandea

■ **12:00etan.** Esperantza Latina Elkarte dantza taldearen eskutik Ekuadorreko dantza erakustaldia herriko kaleetan zehar.

Azaroak 26, astelehena

■ **19:30ean.** Silvia Munt-en *Lalia* dokumentalaren emanaldia.

Azaroak 28, asteazkena

■ **19:30ean.** Tolosaldea Sahararen Elkarte kideen eskutik *Sahara Errefuxiatu Kanpamendura bidaia* hitzaldia.

Azaroak 29, osteguna

■ **19:30ean.** *Inmigrantearen ingrazioa* hitzaldia Ufredo Moraren eskutik Benito Izagirre Kultur Etxean.

Azaroak 30, ostirala

■ **19:30ean.** Kultura elkartrukearen hamabostaldiaren amaiera ekitaldia Sendi Ekintza Elkarte.

gra filma ekuadortarra eskainiko dute. Bertan Ekuadorren bihotzean bizi den neska baten istorioa kontatzen da. Egileari dagokionez, Camilo Luziriagaren sinadura dararama pelikulak.

Hamabostaldiaren oinarrian kultura ezberdinen ezagutza eta elkartrukea aurkitzen dira, ondorioz, bihar eta etzi bidaia ezberdinen inguruko emanaldiak egongo dira, kultura ezberdinen ezagutza eta ulermena lantzeko asmoz. Igandean berriz, herriko kaleetan zehar Ekuadorreko dantza erakustaldiak egingo dira, Esperanza Latina Elkarte dantza taldearen eskutik.

Azoka eta agurra Berastegin

Herenegun amaitu zen Berasteginiko Kultur Astea. Azken eguna, egun handia ere izan zen. Goizean, Gazta Lehiaketa eta Berasteginiko produktu eta eskulanak izan ziren erakusgai azokan. Sari banaketak ordea, eguerdian burutu zituzten. Herriko gaztarik onena, epaileen ustez Mari Karmen Zunzunegik aurkeztu zuena izan zen. Andres Etxeberriarena geratu zen bigarren postuan eta Edurne Oterminena hirugarren.

Azokan jarri ziren postuen artean, ederrena ere aukeratu zuten, kasu honetan, 3. eta 4. mailakoek jarritakoa izan zen sariduna. Ba-

razki postuei dagokionez, Edurne Oterminek irabazi zuen.

Argazki Rallyko epaia, saribanaketekin batera plazaratu zuten. Argazki onena aukeratzeko lana, Andoingo Zine eta Bideo eskola-ko ikasleen esku zegoen eta hauek, «maila handia egon dela» azpimarratuaz, Idoia Labaienen argazkia aukeratu zuten onena bezala. Bigarren Inhar Esnaola geratu zen eta hirugarren Arantxa Saralegi.

Arratsaldean jaiak aurrera jarraitu zuen frontoian. Lehiaketan parte hartutako gazten dastaketarekin batera, taloa, ardoa eta sagardoa edateko aukera eduki zuten festara elkartu zirenek.

» SAILKAPENAK

Gazta Lehiaketa

■ **Lehen saria.** Mari Karmen Zunzunegi.
■ **Bigarren saria.** Andres Etxeberri.
■ **Hirugarren saria.** Edurne Otermin.
■ **Bosgarren saria.** Koro Artola.

Argazki Rallya

■ **Lehen sailkatua.** Idoia Labaien.
■ **Bigarren sailkatua.** Inhar Esnaola.
■ **Hirugarren sailkatua.** Arantxa Saralegi.



Txintxarri Abesbatzakoak goian, eta Txintxarri Txiki, behean. E. ARRAYET



Beste familia batzuetako seme-alabak, beren izen eta abizenak dituztenak, hartzen dituzten harrera familiek. 156 familia gipuzkoarrek 197 adingabekori egiten diete harrera. Aita eta ama anonimo gehiago behar ditugu.

Emango al diguzu zure izena?

Tel: 943 11 25 09



Gipuzkoako Foru Abundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gazte Politikako Departamendua
Departamento de Política Social

'Eraikitzen' leloarekin ekin dio Irurak Kilometroak 2008ren «erronkari»

Irura » Herriko Ikastolak Kilometroak 2008 egitasmoari hasiera eman dio, leloaren eta logoaren aurkezpena eginez

IMANOL GARCIA

Ofizialki hasiera eman dio Irurako Ikastolak Kilometroak 2008ri. Atzo egin zuten prentsaurrekoa Ikastolen Etxean urte bete iraun eta jaialdi erraldoiarekin amaituko den egitasmoari. *Eraikitzen* leloarekin ekin diote «erronka handi» horri, jasotzen den dirua Ikastolaren eraikin berria ordaintzeko izango dela gogoratuz, eta logo bezala eskal ikur ezaguna oinarri hartuta hiru buruko irudikatu dute.

Kilometroakeko arroparekin jantzita egin zuten aurkezpena Sorkunde Irazu Ikastolako lehendakariak, Josune Aiestaran zuzendariak, Arantza Manterola GIEko lehendakariak eta Joxe Mendizabal eta Igor Elortza Kilometroak 2008ren koordinatzaileak. «Orain



Ekzerretik hasita, Mendizabal, Irazu, Manterola, Aiestaran eta Elortza. I. GARCIA

arte jaialdia egin den herririk txikiena da Irura», zehaztu zuen Elortzak. Herri txikia izanagatik ere, «herri bizia» dela gaineratu zuen eta «erronkari aurre egiteko prest» dagoela.

Herri kohesioa

Sorkunde Irazuk Kilometroaken helburuak aipatu zituen. Nabarmenena, Ikastolak herrian sortzen

duen kohesioa da. «Irura herri berria da», azaldu du Irazuk, «eta gurasoen arteko harremanak Ikastolaren inguruan gauzatzen dira. Ikastolaren alde herri guztia inplikatzen da: haurrak, gazteak, gurasoak, aiton,amonak...».

Eraikin berria egiten hasi dira dagoeneko. «Lekurik ezak dakar eraikin berri baten apustua», zioen Irazuk. «Etekin ekonomikoa da



behar duguna jauzi handi honi buelta emateko».

Bestalde, Irurako haurrek egiten duten ikasketa ibilbidea izan zuten hizpide. Iruran hasi, Anoetan jarraitu eta Tolosan bukatzen dute unibertsitate aurreko ikasketak. Hori dela eta, «bailarakide dituen ikastolak gertu izango dira lankuntzeko», azaldu zuen Irazuk. Arantza Manterolak ikastolak «biziak, beharrei aurre egiten dietenak eta ausartak» direla eta «elkartasuneko» kolektibo direla nabarmendu zuen.

Kilometroak 2008ko denda martxan jarriko dute gaurtik aurrera. Tolosako Kale Nagusiko 15. zenbakian dago. Astegunetan

17:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 09:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Arropak ez ezik, pinak, metxeroak, poltsak eta osagarriak egongo dira salgai. Aurkezpenaren gonbitea luzatu zuten bertara erosketak egitera joateko.

Historia pixka bat

Orain 30 urte ireki zituen atek Irurako Ikastolak. «Herrian kezka bat zegoen: euskara galtzen ari zela», azaldu zuen Josune Aiestaranek. Gazte Alaiak elkartean inguruan herriko hainbat guraso eta gazte gaiari heldu zioten. «Egoera ez zen samurra», zioen Aiestaranek, «baina ez zitzaizaien ilusiorik falta, egungoei falta ez zaien bezalaxe».

Apaitzeko lokalean abiatu zuten proiektua. 1981. urtean jaso zuten titulartasuna. 1985. urtean egungo egoitzara pasa ziren. Hurrengo urtean, eskola publikoa desagertuta, Ikastola herriko eskola bakarra bezala gelditu zen. Haur Hezkuntza eskaintzen zuten eta gero ikasleak Anoetara joaten ziren ikasketak jarraituz.

1994an bigarren gela zabaldu zuten. 1996an hirugarren gela eta 2003an LH1 eta 2 ematen hasi ziren ere. Egun 2 urtetik hasi eta 12 urte bitarteko hezkuntza eskaintzen du Irurako Ikastolak.

Igandeko aurkezpen ekitaldi «borobila» Leidorren

Irura » Leloa, logoa eta arropa erakutsi zituzten Leidorreko aurkezpenean, aurpegi ezagunekin eta ezustekoekin

I. GARCIA

Ekitaldi «borobila» egin zuten igandean Leidorren. Kilometroak 2008ren aurkezpen ofiziala zen eta gizarteari leloa, logoa eta arropa erakustea zuen xedea. «Nahi genuen bezala atera zen», azaldu du Joxe Mendizabal Kilometroak 2008ren koordinatzaileak.

Kike Amonarriz eta Nerea Alias ezagunak aritu ziren aurkezle lanetan. Eszenatokia andamioekin eta obretarako tresnekin jantzi zuten. *Eraikitzen* leloarekin bat eginez. Arroparen desfilean 70 lagu-



Ekitaldian zehar, Pirritx eta Porrotx pailazoak, Ainere Tolosa eta Jon Iraola aktoreak eta desfilean parte hartu zuten hainbat haur. ANDER OTEZABAL



netik gora aritu ziren: Irurako, Anoetako, Tolosako eta Ibarako Ikastolako eta Inmakulada ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoak.

Motoak eszenatokian

Aurpegi ezagunak ere izan ziren: Ainere Tolosa, Jon Iraola, Iker Gartzia eta Joseba Usabiaga aktore-

ak eta Pirritx eta Porrotx pailazoak. Horrez gain Alurreko dantzariak eta Mulanboko perkusio jostzaileak izan ziren eta ezusteko

handiena Rakel Carlos eta Txopak Beraza harley motorzaleek eman zuten, motoen gainean eszenatokia azaldu baitziren.

txokoa
h

2 sarrera pare

Azaroak 23 ostirala,
21:00etan Tolosako Leidorren

**Carlos Nuñez
+ Alos Quartet**



Igandera arte, ekitaldi andana Kultur Astearen baitan

Aduna » Gaur Idoia Sanchez ipuin kontalaria ariko da eta, ondoren, Josu Naberaren hitzaldia izango da entzungai

ERREDAKZIOA

Eskaialdeko herri gehienetan bezalaxe, Adunan ere Kultur Astea egingo dute. Hala, atzo hasi eta igandera bitarte, ekitaldi ugari izango dira herritarrentzat aukerarik.

Gaur, Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da 17:30ean Kultur Etxean, eta 20:00etan eta leku berean, *Euskal mitologiaren balioak* izango dira hizpide, Josu Naberaren eskutik. Bihar, Xexili bezperako kontzertua emango dute Loatz eskolakoek, 20:00etan plazan.

Etzi, berriz, AHT, araztegia eta

errausgailuari buruz hitz egingo dute Kultur Etxean, 20:00etan.

Ostiralean, Iban Nikolai eta perkusioaren eskutik kontzertua izango da, Uztartzan 22:00etan.

Asteburuan ere jaia nagusi

Asteburu ere ekitaldiz josi dute. Hala, Loatzokoen kalejira nagusia izango da 11:00etan eta etxeko txiki-entzuzat Zirika zirkus pailazoak izango dira, 17:00etan.

Gau aldean, berriz, barrikotea, taloak, gaztainak eta ardoa izango dituzte dastagai.

Asteari era ezin hobean emango diote amaiera. Izan ere, igandean, 11:00etan, Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserri-museora egingo dute bisita. Ondoren, bazkaria egingo dute Lazkaoko Amebi jatetxean. (Helduak: Sagardotegiko menua, 35 euro eta gaztetxoak Makarroiak, Oilaskoa, Helatua, 15 euro).

Leitzarrek laugarren sari berezia eraman dute Kantu Txapelketan

Leitza » Maddi Olano eta Birjina Mariezkurrena bikote lanean aritu ziren pasa den asteburuan, Lekunberrin

ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan Lekunberri ahots gozoen hiriburua bilakatu zen, bertan egin baitzuten Nafarroako Kantu Txapelketa. Leitzaldeko ordezkariak ere ailegatu zen bertara eta bikote lanean aritu ziren Maddi Olano eta Birjina Mariezkurrena abeslariak laugarren postua eskuratu zuten, sari bereziko atalean.

Sormenezko kantaren alorrean, lehenengo saria Ainara Villanueva

eta Edurne Errea (Aurizberri) bikoteak eraman zuten eta Tuterako Saioa Cresporentzat izan zen bigarrena. Era zaharrean, berriz, Iruñeko Izkonbikoteak eraman zuten eta bigarren saria Elizondoko Eliza Perotxena eta (Ziaurritz) Inaki Gerendainentzat izan zen. Azkenik, era modernoan, lehen saria Lekunberriko taldearentzat izan zen eta bigarrena Miren eta Edurne Erreak eskuratu zuten.

Ekainean, Euskal Herrikoa

2008ko ekainean Bilboko Arriaga antzokian izanen den Euskal Herriko Kantu Txapelketa Nagusirako Nafarroako ordezkariak hauek izanen dira: Bakarrietan, Saioa Crespo; bikoteetan, Izkon; taldeetan Lekunberriko taldea.

Laburrak

Bihar, bilera egingo dute biltegian

IRURA » Irurako Ikastolako komunikazio batzordeak jakinarazi duenez, bihar, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, biltegian bilera egingo dute. Bertan, kilometroak 08rako arropa saltzeko irteeren egutegia osatuko dute eta irteeretera eraman beharreko materiala erabiltzen irakatsiko dute.

Villabonako Iyuya Urrutiak irabazi du argazki rallya

ASTEASU » Asteasuko argazki rallyko irabazleak pasa den hilean eman zituzten jakitera. Hauek dira, hain zuzen ere, finalistak: lehenengo saria Villabonako Iyuya Urrutiarentzat izan zen (150 euro). Bigarren saria, berriz, (120 euro) Aitor Regillaga urrietararentzat izan zen eta hirugarren saria (100 euro) Lazkaoko Andoni Barandiarantzat izan zen.

Barriolak Titin izango du aurkari lau t'erdiko finalean

LEITZA » Abel Barriola pilotariak Titin izango du aurrez aurrez Lau t'erdiko Txapelketako finalean. Izan ere, Titinek 19-22 irabazi zion atzo Olaizolari, eta sasoi betearen dagoela erakutsi zuen. Hain justu, gogor hasi zen Olaizola eta Titin hutsen utzita egin zituen lehen zazpi tantoak. Baina erreakzionatzen jakin zuen errioxarrak, eta hortik aurrera bere jokoa egiten hasi, sarritan Olaizola bere jokotik atera, eta partida irabaztea lortu zuen. EPELen Eskupilota Enpresen Ligak Lau eta Erdiko finala Gasteizko Ogeta pilotalekuan abenduaren 2an egitea erabaki du.

Loatzo musika eskolakoek Santa Zeziliako emanaldiak

KULTURA » Loatzo musika eskolak emanaldiak eskainiko ditu Santa Zezilia egunaren harira. Anoeta, Ibarra, Irura, Zizurkil, Alegia eta Villabonako kalejirak egingo dituzte, 18:30ean, 19:00etan, 18:30ean, 19:00etan, 19:00etan eta 19:30ean. hurrenez hurren. Altzonen ikasleen audizioa 17:00etan egingo dute. Adunan, talde instrumentalean emanaldia, 20:00etan Elordi plazako lokalean.



Herenegun plazan eginiko azokaren une bat. HITZA

Herriko baserriarrek eta artisauek jende ugari bildu zuten azokan

Anoeta » Informazio kanpainari amaiera eman diote; aste honetan eztabaida prozesua jarriko dute martxan

ERREDAKZIOA

Anoetan AHTren inguruan egunotan aurrera eraman duten informazio kanpaina herenegun bukatu zen herriko artisauen eta baserriarren azokarekin. Hotzari aurre egingez, 11:00etan eman zioten hasiera txalapartarekin eta suziri batzuk botatz.

Orotarabostpostu jarri zizuten eta «jende asko» hurbildu zen, antolatzaileek jakitera eman dutenez. Postuekin batera herritar talde batek taloak egiten jardun zuten, sabelak bero-bero betetzeko.

Salmenta guneak

Salmenta-gunean prozesu honen barnean ateratako nigaiak, DVDak... jarri zituzten salgai eta DVDa ere ikusgai egon zen.

Behin azoka amaituta, artisauek eta baserriarrek Kuku elkartean elkartu ziren, bazkari legea egiteko. Arratsalde partean, berriz, trikitilariekin erromeria egin zuten eta gaztainak jateko aukera ere izan zuten bertaratuek. Festa giroa

an eman zioten amaiera, beraz, informazio kanpainari.

Aste honetan eztabaida-prozesuari ekingo diote, abenduaren 2an egingo duten herri galdeketa-aren atarian.

Hala, gaur 19:00etan udaletxean, AHTren «aurkako erakunde-ek» proiektuaren «aurkako arrazoiak» azalduko dituzte.

Etzi, osteguna, 19:00etan udal-etxean, mahai-ingurua egingo dute eragile ezberdinen artean. Bertan AHTren inguruan ditugun zalantzak argituko dituzte.

Larunbatean bertso saioa

Larunbatean, Anjel Mari Peñagarikano, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Amaia Agirre eta Nahikari Gabilondo bertsolariak saioa eskainiko dute, frontoian, 22:30ean. Gai jartzaile lanetan Iker Iriarte izango da.

Iragarki laburrak


SALGAI

■ **Sutarako egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. Deitu 615 75 57 62ra.
■ **Autoa.** 206 GTI. 4 urte. 7.500 euro. Aukera bikaina. Interesatuak deitu 656 41 02 80ra.

txokoa

Harpidedun **guztien** artean, abenduaren 2an, Liverpool-eko Anfield estadioan jokatu den **Liverpool - Bolton Wanderers** futbol partidarako, **bi pertsonentzako** hegaldia, bi gauerako hotela eta partidarako sarrera pareta zozketatuko ditugu!

Gainera, Xabi eta Mikel Alonso tolosarren kamiseta bana!



HITZAren harpideduntzat abantailak

Irabazlearen izena, azaroaren 25ean argitaratuko dugu.

GUPTUA

Azaroak 24, **Jatumbata**
OIARTZUN, Elorsoro Karoldegia
18:00

Amaia Agirre Iker Zubeldia
Irigo Manizidor "maniz" Xabier Sukia
Jon Maia Arkatz Diartzabal

www.guptua.com

hitza



Ekzerrean eta behean ferialekuko bazkariko eta lehiaketako uneak. Goian, Zerkausiko bazkariko irudia, txarangaren doinuekin. HITZA

20.000 lagun inguru bildu ditu egun hauetan Babarrun Asteak

Kultura » Albizturko Juan Mari eta Karmele Aramendik irabazi dute Gure Kaiola elkarteak antolatutako Lehiaketa Gastronomikoa

I. TERRADILLOS-E. EZEIZA

Aurtengo Babarrun Asteari amaiera emateko, lekalearen erakustoki bilakatu zen herenegun Tolosa. Gauzatutako beste ekitaldien artean, Martin Berasategik eskainitako sukaldaritzarako erakusketa, urrezko hamar dominen banaketa, sukaldarien bazkaria, bazkari herrikoa eta Gastronomiaren Onena IX. Batzarreko inaugurazio afaria izan ziren.

Orotara, 20.000 lagun inguru hurbildu dira egun hauetan Babarrunaren Festa ospatzera. Gainera, 700 kilo babarrun dastatu ahal izan dituzte hurbildu direnek. Datu hauek ikusita, esan daiteke

arrakasta handia izan duela beste behin ere, Tolosako Babarrun Asteak.

Egun hauetan gauzatu diren lehiaketen artean, atzo egin zen azkena. Gure Kaiola elkarteak antolatuta, sukaldari onenaren saria Albizturrera joan zen. Juan Mari eta Karmele Aramendi anai-arrebak izan ziren garaile. Hurrengobi sariak Tolosan geratu ziren. Bigarren postua Mari Luz Bustamante eta Juan Agirrentzat izan zen, eta hirugarrena, Javier Lazkano eta Joxe Otxoarentzat. Itxura atalean, ez zen irabazlerik egon. Bigarren saria Joxe Mari Barriola eta Rafa Aginaga beasaindarrek era-

man zuten. Hirugarrena berriz, Pili Iturbe te Joxe Manuel Soroiz tolosarrentzat izan zen.

Lehiaketaren ondoren, elkarteak berak antolatuta, herri bazkaria izan zen ferialekuan, hemen 650 lagun inguruk jan ahal izan zituzten lekale irabazlearen babarrunak.

Bestalde, Gastronomiaren Onena ekimenarekin bat eginez, jantoki erraldoi bilakatu zen herenegun Zerkausia. Divinus Catering-ek lagunduta 700 pertsona baino gehiagok bazkaldu eta afaldu zuten bertan. Otordu hau prestatzeko luxuzko sukaldariak aritu ziren lanean. Lekaleen prestatetan bikaintasuna erakustegatik Urrezko Dominak jaso dituzten sukaldariak prestatutako lekalez osatutako plater desberdinek osatu zuten menua. Bertan dastatu ahal izan ziren platerren artean ziren:

Tolosako babarrun gorriak, asturiar fabada, dilisten zampene...

Gastronomiaren Onena

Herenegun inauguratu zen ere, Tolosan, Gastronomiaren onena IX. Batzarra. Bertan, Udalak eta ostalariak ongietorria eman zioten bilkuran parte hartuko duten 150 pertsoneri. Batzar hau, Donostiako Kursaalaren ari da ospatzen egun hauetan.

Lehiaketa Gastronomikoa

Gure Kaiola elkarteak, XXI. aldiz antolatutako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoan inoiz baino jende gehiago bildu zen. Aurreikuspenak gaindituz, 565 pertsona joan ziren bazkaltzera Ferialekura. Hauetatik, 82, Trintxerpekoak ziren. Donostiarrak, lehiaketa parte hartzen zuen auzokidebatanimatzerak joan ziren. Hala,

bazkaltzera joan zirenak nahiz antolatzaileak «oso gustura» geratu ziren.

Epaimahaikideen esanetan, maila oso ona zen lehiakideen artean. Hala, «horren adierazle da, plateraren aurkezpenaren sariketan, ez zela lehendabiziko posturik egon. Gure Kaiolakoek azaldu bezala, «filosofia» ezberdina zuten Zerkausiko eta ferialekuko bazkariak, azken hau, herri bazkari bat baitzen. Hala ere, adirazi dute, bateragarriak direla bi egitasmoak, «biantan ere jende ugari bildu baitzen».

Zuzenketa. Igardeko, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN Babarrunaren Festako albistean akats bat zegoen. Txinpartak antolatutako Txapela nork hobeto jantzi lehiaketa, emakumeetan bigarren Maite Sanchez izan zen.

Hilberria

MARIA ARANA SAIZAR

(Jose Antonio Loizenzen alarguna)

Atzo hil zen 80 urte zituela eleizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Seme-alabak: M. Karmen, Pili, Juli, Joxe Mari, Itziar eta M. Angeles.

Haren animaren alde otziz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitezte! GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko 17:30ean, Baliarraingo ANDRE MARIA ZERURATZEA parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



BALIARRAIN
2007ko
azararen 20a

Helbidea: Bidasola etxea
Oharra: Gorpuzte beila Tolosaldeko Funeraria Vascongoda tanatorioan dago.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarr
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

«Prozesu guztian eltzearen alboan egotea da sekretua»

JUAN MARI ARAMENDI Lehiaketa Gastronomikoan irabazlea

Kultura » Bigarren zuzen irabazi du Gure Kaiolak antolatzen duen Lehiaketa Gastronomikoa; «oso gustura» dago



HITZA

I. TERRADILLOS

Juan Mari Aramendik (Albiztur, 1979) irabazi du aurtengo Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa. Bere arreba Karmele izan zuen laguntzaile babarrunak prestatzerakoan. Arrebak ezetz, aitak eta amak, eta baita anaiek ere eduki ezagutzen dute babarrunaren mundua, Albizturren jatetxe bat baituzten duela gutxira arte. Oso gustura dago jaso duen sariarekin. **Ez da lehendabiziko aldia sari hau jasotzen duzuna. Gustura, ezta?** Bai, oso gustura. Lehiaketara zeozer egiteko esperantzaz joan nintzen, irabaztea asko zen niretzat. Egindako lanarekin oso gustura nago.

Duela bi urte ere lehendabiziko saria jaso zenuen.

Bai, hain zuzen ere, nire aitak eta biok dugun adarra jotzeko sistemarengatik aurkeztu nintzen, nire aita ere aurkeztu baita lehiaketan, eta eagoinditzen nion. Eta azkenean irabazi egin nion eta nuen lehiaketa. Laz egin izan nuen aurkeztu, irabazi egin bainuen aurreko urtean, eta aitak bigarren egin zuen.

Aitarengatik eta amarengatik jaso duzu sukaldariko afizioa?

Bai. Gurasoek Albizturren izan zuten jatetxe bat 25 urtez, eta anai-arrebok txixtitatik lagundu genuen han. Nik, esaterako, 8 urte niuen hasi nintzen. Orduan hasi zitzaidan sukaldia gustatzen, eta

amak erakutsitakoarekin eta nik ikusten nuenarekin ikasi nuen babarrunak prestatzen.

Gurasoek urteak daramatate lehiaketan aurkezten?

Nire amak Gure Kaiola elkarteak antolatu zuen lehendabiziko Lehiaketa Gastronomikoa irabazi zuen. Gerora, nire aita hasi zen parte hartzen, eta ordutik urtero egin du.

Zure plater irabazlearen sekretua zein da?

Orain bi urte irabazi nuenean bezala, berdin berdin egin nituen herenegun ere babarrunak. Niri gustatzen zaidana, prozesu guztian eltzearen alboan egotea da. Irakiten nola dagoen begira egotea gustatzen zait.

Herenegun lehiaketan prestatu zenituen bezala prestatzen al ditu gaur egun jendeak babarrunak?

Ez, gero eta gutxiago. Gaur egun ez dauka jendeak hainbeste ordu sukaldian egoteko denbora. Horretaz gain, bitrozeramikarekin ere ez dira hain ondo egiten.



Lehiaketa Gastronomikoaren sari banaketaren une bat. HITZA

Ekitaldiz beterik hasi da Oargi elkartearen Mendi Hamabostaldia

Mendia » Abenduaren 1era arte azoka, erakusketa, hitzaldiak, ikus-entzunezkoak eta txapelketa izango dira

» EGITARAUA

Azaroren 25era arte

■ Mendiko material azoka.

Eskura egongo da bai jendeak, bai dendek utzitako materiala.

■ **Argazki Lehiaketaren erakustaldia.** Parte-hartzaileen argazkiak egongo dira ikusgai.

Azaroak 20, gaur

■ 'Espeleologiaren etorkizuna'.

Ikus-entzunezkoak, Felix Ugarte elkartearen eskutik, 19:00etan, Kultur Etxean.

Azaroak 23, ostirala

■ 'Ama Dablam Sherpen Mendia'.

Ikus-entzunezkoak, Errotan (Haur liburutegian), 19:00etan.

Azaroak 27, asteartea

■ 'Gasherbrum II-raigoera'. Ikus-entzunezkoak, Pedro Garciaren eskutik, 19:30ean, Oargin.

Azaroak 28, asteazkena

■ 'Annapurna'. Oargikide diren

Gari Karrerak eta Mikel Mendizabalek Annapurnan egindako trekking baten xehetasunak argituko dituzte, 19:30ean, Oargi elkartearen. Besteak beste, Himalayan txango errazak egiteko aukera, kostua eta gutxienezko baimenez ariko dira.

Azaroak 29, osteguna

■ 'Torre sin nombre'. Ikus-entzunezkoak, eskaladari buruz, (Alpi Mambo expeditzioa), 19:30ean, Oargi mendi elkartearen.

Azaroak 30, ostirala

■ 'Urtebete Himalayan'. Ikus-entzunezkoak, Axier Izagirrearen eskutik, 19:00etan, Oargi elkartearen. Ondoren, Axier Izagirre omenduko dute, eta afaria egongo da.

Abenduak 1, larunbata

■ **Boulder txapelketa.** Hiru mailatan banatuko txapelketa herrikoia: senior, sub 18 eta sub 16. 16:00etan, Oargi elkartearen.

Tolosak 1-2 galdu zuen Beasainen aurka

Kirola » Bi azkenekoan artekoan, Beasainek eraman zituen puntuak, tolosarrak sailkapenean egoera larrian utziz

ERREDAKZIOA

Hirugarren mailan azken postuan dauden bi talderen arteko lehia izan zen larunbatean, Beasain eta Tolosaren artekoa, hain zuzen. Eta azkenean Beasaingo taldeak iraba-

zi zuen Tolosako Berazubiko zelaiaren jokatutako partida.

Partida osoa ikusita, berdinketa litzateke bi taldeentzat emaitzarik egokiena, baina ez zen horrela izan. Tolosa izan zen lehena markagailua estreinatzen, baina, hauk, ondo jokatzen hasi baziren, pixkanaka atzerantz jo zuten, eta Beasaingoak hasi ziren estutzen. Hala, berdinketaren gola egin zuten, eta bigarren zatian, berriz, bigarrena sartu zuten. Tolosak, gehiago mezezi bai, baina ezin izan zuten.

Laskorainek ez zuen aukerarik izan

Areto futbolak

Laskorainek ezin izan zuten Zierbena taldearekin eta sailkapena bigarren postura jaitsi da

ERREDAKZIOA

Txapelketako faborito nagusia den Zierbena ahaltzua zetorren Usabalera, baina hala eta guztiz ere itxaropentsu ziren Alonsoren mutlak.

Itxaropena azkar galdu

Lehen hamar minutuetan, jokoan talde baten eta bestearen artean alde gehiegirik egon ez bazen ere, golerako eraginkortasun kupidagabea erakutsi zuten bizkaitarrek eta 0-4 aurreratu ziren. Azpimagarriena, ikastolakoek erakutsiriko profesionaltasuna izan zen, helburua ezinezkoa izanagatik ere borrokan jarraitu baitzuten amaieran bitartean. Emaitza 4-10koa izan zen eta golegileak Telleria, Gil eta Saldias izan ziren.

Konfidantza hartzeko garaipena Tolosa Aralarrentzat

Saskibaloia » Denboraldiko hirugarren garaipena eskuratu zuten Padura talde bizkaitararen aurka

ERREDAKZIOA

Sailkapeneko hirugarrena izan zen bisitari larunbatean Usabalen. Urduritasun handia zen etxekengan eta nahiz eta partida oso ona izan ez bazen ere, lau laurdenak irabaztea lortu zen eta horri esker, denboraldiko hirugarren garaipena.

Denbora guztian aurretik

Lehen bi laurdenetan 4 puntuko errenta lortu zuten eta horrela, 8 puntuko alde lortu zuten atsedendian (41-33). Hirugarren eta laugarren laurdenak 2 puntugatik irabazi zituzten eta ondorioz, azken alde 12koa izan zen (82-70). Azken laurdenean puntu batera gerturatu ziren bizkaitarrak baina une bateko gauza izan zen, berehala alde egin baitzuten etxekoek azken alde hori lortu arte.

Datorren asteburuko partidari dagokionez, berriz ere etxean jokatuko dute tolosarrek, Viajes Marfil talde nafararen aurka. Partida 16:00etatik aurrera izango da ikusteko aukera, Usabalen.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoeta/leizaola@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibarra/leizaola@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaldiak

■ **Alegia.** Bazurkako sorgin-orratzak hitzaldia Kultur Etxean 19:00etan, Iñaki Mezquitaren eskutik.

Deialdiak

■ **Villabona.** Aizkardiko kideek Teide La Palma irlaren mendiak emanaldia emango dute Gurean 20:00etan, Aizkardiko mendi as- tearen barruan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43.112..
■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

218 korrikalari herri krosean

Ikaztegieta » Herriko lehenengoak Joxe Mari Garmendia eta Eneritz Maiz izan dira; Olaberriari omenaldia egin zioten

NEREA URBIZU

218 lagun atera ziren guztira Ikaztegieta XVII. herri krosean. Horietatik 35 bat haurrak ziren. Aurtengo irabazleak hauek izan dira: Juanjo Igarzabal (32:44) eta Maria Mendibe (40:29) seniorretan; Iosu Manzisidor (34:05) eta Alicia Olazabal (37:28) beterranoen artean.

Lehenengo gizonetako herritarra Joxe Mari Garmendia izan zen



Beheran erdian, Garmendia eta Maiz, herriko lehenengoak. HITZA

(35:13), eta lehen emakumea, be- rriz, Eneritz Maiz (50:45). Hauek ere sarria jaso zuten.

Ondoren, kirol materiala zozke- tatu zuten. Txorizoa ere eskertu zuten korrikalariak, hotz egiten baitzuen, baina ondo ibili ziren de- nak.

Olaberriari omenaldia

Leire Olaberria txirrundulariari omenaldia egin zioten, eta «omen- aldia hauetara ohituta badago ere, gustura egon zen, lasai», Joxe Mari Garmendia Herrigintza el- karteko kideak esan bezala.

Bazkarian 30 bazkide izan ziren.

A Agurak



Urte askoan!

Maren Gurrutxaga Esnaola (Lazkao). Gaur 4 urte. Muxuak Eñaut, Maddi eta beste guztien partetik.



Urte askoan!

Aran. Etxekoan eta familia guztiaren partetik zorionak eta muxu handi bat.



Urte askoan! Oier.

Muxu handi ta goxoak. Eutsi! Irabazi arte. Orendaingo lagunak

Ezkongaiak 2008-09

Herri Irratia Donostia 1224om/94.8fm

IZARRA BITXITEGIA. Juan XXIII Plaza eta Geltoki 19. Lasarte-Oria. 943-364945. Oparia: urrezko ezkontza-eraztunak eta ezkontza-horniak.

AUZMENDI SASTREA. Bergara, 1-Donostia. 943-424060. Senargaietako jantziak. Oparia: se-nargai jantziarentzako 300 €-tako erosketa txartela.

CODORNIU. 94.4235708. Oparia: Cava Anna Brut Nature 3 kaxa eta Codorniu Taldeko Viña Pomal Selección Aniversario erreserba 2 kaxa ardo beltza

ATALAIA JATETXEA HOTELA. Txingudi merkatal parkeko sarreran. 943.635518. Oparia: bikotearentzat afari-gosaridun gaua hotelean.

SILKEN AMARA PLAZA HOTELA 943-464600 Oparia: Silken kateko hotel batetan 2 pertsonentzako asteburua (2 gau + gosariak).

BAYON. Bergara, 23 - Donostia. 943-425087. Emaztegai jantziak. Oparia: emazte-gai jantziarentzako 300 €-tako erosketa txartela.

ARAETA JATETXEA. Zubieta Auzoa -Araeta-. Telefonoa: 943.362049. Oparia: Ezkontzako txanpaina.

VALLINA. Ezkontzako kotxea. Erabateko luxua guztien eskura. Telefonoa: 943.393.848. Oparia: ezkontz-eguneko kotxea.

SANCHEZ INPRIMATEGIA. Easo, 33. Donostia. 943-465308. Katalogoak eta gonbidape-nak. Oparia: ezkontzarako gonbidapenak

FEEDBAK ORKESTRA. Kalitate goreneko musika mota guztiak. 637-513293. Oparia: ezkontzako emanaldia %20eko beharpenarekin.

ELI VELI MEN. PELUQUERÍA-ESTÉTICA HOMBRE. Iparragirre 18, Gros -Donostia-. 943.290623. Oparia: Beharpen txartela.

FOTOGRAFÍA AMAIUR ARGAZKIAK. Usandizaga 2, Gros -Donostia-. 943.321569. Oparia: argazki erreportajearen beharpen txartela.

e-posta... novios@herri-irratia.com

Ezkongaiak 2008-09 Lehiaketa, "Revista Novias de Euskadi" aldizkariaren kolaborazioarekin

2008-09an ezkontzen bazara, azaroaren 26a aurretik hau bete eta ondorengo helbideren batetara bidali:

HERRI IRRATIA - DONOSTIA
GARIBAI 19 20004 DONOSTIA

Senargaiaren izen-abizenak:

Tel.:

Helbidea:

Posta-Kodea:

Herria:

Emaztegaiaren izen-abizenak:

Tel.:

Helbidea:

Posta-Kodea:

Herria:

Ezkontzaren gutxi gora-beherako data: